



BEZERO SEGMENTUA

Gure produktua, maila sozio-ekonomiko erdi altuetan kokatuta dauden kontsumitzaileentzat bideratuta egongo da eta ontzikiaren barruan joango den gurina kilometro 0koa izango denez, kalitate onekoa izango dela esane dezkegu. Bertako gurina izanik, guri ere gehiago kostatuko zaigu ekoiztea, beraz, prezio altuagoetan saldu beharko dugu irabaziak izateko. Produktua bertakoa izateak egungo gizartearen emandako kontsumo aldaketarekin bat egin dezake. Gure produktua oso baliagarria izango da seme-alaba gazteak dituzten familientzako baita adinduentzako ere, erabiltzeko oso erraza bait delako. Hau azalduz, esan dezakegu ume txikientzako askoz ere errazagoa izango dela ez dutelako labainik erabili behar, beraz, ez dute inungo arriskurik izango eta ezta gurasoen laguntzarik ere, honek gurasoei denbora aurreztuko lieke. Honekin batera, adinduentzat ere askoz errezagoa izango litzateke produktu hau erabiltzea ez dutelako inungo indarririk egin behar gurina labainarekin enbasetik hartzeko, horrela beraien kabuz ahalko dute mantekilla igurtzi inoren laguntza behar gabe. Irizpide geografikoari dagokionez, hirietako supermerkatuetan salduko genuke, izan ere, uste dugu oso produktu erabilgarria izan daitekeela eta beraz herrietako eta hirietako supermerkatuetan salduko ditugu bezero gehiago izatearren. Demografikoki seme-alaba duten familietan onuragarria izan daiteke eta adinduentzat ere bai beraz, diru sarrera ertain handiak dituzten etxeetakoak. Azkenik, gure produktua kontsumitzen duten pertsonak maiztasunarekin erosiko luketeen, izan ere, gurina maiztasunarekin kontsumitzen den produktua bat da eta beraz, sarritan erosi beharko litzatekeen produktu bat izango litzateke. Markarekiko lehiak bestelako gurinak izango liratekeen.